



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

177. INFORMAZIO BULETINA

> 2022ko uztaila - abuztua



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **“Europar Batasunaren erronka globalak” ikastaroa Donostian, Europako Justizia komisarioarekin, eta Estatuko eta Euskadiko gobernuekin**

EHUren ikastaroak, EBko Justizia Auzitegiko letraduek zuzendua, etorkizuneko erronkei heldu zien, hala nola kanpo-politikari eta politika sozioekonomikoari. Estatuko agintariek parte hartu zuten, eta Eusko Jaurlaritzaren izenean, Autogobernuko sailburuak hitza eta botoa eskatu zituen Euskadirentzat EBren aurrean.

Uztailaren amaieran Miramar Jauregian egindako ikastaroan Didier Reynders Europako Batzordeko Justizia komisarioak, Justizia ministroak eta 3 ministro ohik parte hartu zuten. Europako Praktika Juridikoaren Akademiak eta Espainiako Erregistratzaileen Elkargoak bultzatutako hainbat ikastaroren jarraipena da. Gaien artean, honako hauek nabarmendu ziren: Ukrainako gerra, gerra horrek larriagotutako desberdintasun eta ezegonkortasun sozioekonomikoa, Europako balioak eta estatuz azpiko gobernuek EBn duten parte-hartzea.

(informazio +)

> **Adinberri izango da Euroeskualdeko zainketei buruzko Europar Berrikuntza Poloa: hitzarmen bat sinatu dute Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak**

Uztailan Pasaian sinatutako hitzarmenaren bidez -bertan kokatuko da Poloa-, Eusko Jaurlaritzak ia 3 milioi euro jarriko ditu zahartzearen erronkari aurre egiteko, berrikuntzaz eta alderdi sozialak, osasunekoak, enpresarialak eta teknologikoak elkartuz.

Zentroa 2023an eta 2024an eraikiko da, adinekoen egoitza bat eta I+G unitate bat barne, eta Adinberri Fundazioa izango da erakunde gidaria.

Maite Peña Gizarte Politiketako foru diputatuaren, Adinberriko presidentearen eta Pasaia ordezkarien alboan, Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak adierazi du Inteligentzia Aurreratuko Behatokia izango dela, NAEN Euroeskualdearen esparruan (Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa), Zaintzetan Berritzeko Mugaz Gaindiko Lehen Europako Poloan integraturik.

(informazio+)



> **Donostia Gizarte Ekonomiako Hiriburu izateko hautagaia da 2023ko Europako bigarren seihilekoari begira**

Uztailean, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuorde Elena Pérez Barredok proposamen bat helarazi zion Enpleguko Estatu idazkariari, besteak beste Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta, Donostia gai horren erreferentziatzko egoitza izan dadin EBko Espainiaren lehendakaritzaren seihilekoan.

Donostia izango da 2023ko uztailetik abendura bitartean goi mailako bilerak egingo dituzten 25 hirietako bat. Sailburuordeak gogorarazi zuen gizarte-ekonomiak Gipuzkoan duen garrantzia, ez bakarrik garapen ekonomikorako, baizik eta egituratze eta kohesio sozialerako. Donostiaren kasuan, enpresa-elkarteen erreferente dela nabarmendu du, eta 2030 Estrategiaren erronketako baterako konpromisoa baduela, ezagutza erakartzearen eta berrikuntzaren aldeko apustua egiten duten estrategiekiko, hain zuzen ere.

(informazio+)

> **Europako Batzordeak bere strategiari EU4Dual Europako unibertsitate-aliantza gehitu dio, Mondragon Unibertsitatea buru duena**

Horrela, UPV-EHU Euskampus, ENLIGHT sarean parte hartzen duena, eta Deustu, UNIC aliantzan parte hartzen duena, guztiak ere Batzordeak hainbat programa ezartzeko lehentasunezko hartutakoak.

Hala, egoitza nagusia EAEn duten unibertsitate guztiak EBren aliantza-sistema berriaren parte dira. Sistema hori funtsezkoa da curriculumak homologatzeko, pertsonak elkartruketan lekualdatzeko eta sektore publiko eta pribatuekin ikerketa-proiektuak egiteko.

EU4Dualen eta Euskampusen Akitania Berriko Bordele eta ESTIA unibertsitateek parte hartzen dute, hurrenez hurren, eta, beraz, NAEN Euroeskualdearen esparrurako funtsezko lankidetzak ere badira.

(informazio+)



ESKUALDE POLITIKA ETA KOHESIO POLITIKA

> **Mugaz gaindiko herritarren lankidetzarako 19 proiektu babestuko ditu aurten Euroeskualdeak**

500.000 euro eman ditu kultura, hezkuntza, gazteria, kirola, eleaniztasuna eta gizarte-erronketako hainbat eragilerentzat. Proiektu bakoitzak EAeko, Nafarroako eta Akitania Berriko erakundeak eta pertsonak batzen ditu, eta azken honen barne bereziki Iparraldekoak.

Uztailan, Euroeskualdeko Batzorde Betearazleak bilera egin zuen Euroeskualdeko Herritarrei eskainitako urteko deialdiaren proiektu onuradunen hautaketa onartzeko. 19 horiei aurreko urteetako beste 137 gehitu behar zaizkie.

Kultura epigrafean arte eszeniko, mediatiko eta ikus-entzunezkoetako, zinemako, literaturako edo musikako 10 proiektu babesten dira, gehienak gazteriara eta euskarara begira. "Hezkuntza eta gazteria" alorretako hirurek azoka zientifiko bat, akuikultura eta mugaz gaindiko gazteen topaketak jorratuko dituzte. Eleaniztasunaren ataleko 2.ak audientzien neurketan eta okzitanierazko transkribatzaile batean oinarritzen dira. Erronka sozialetako kategoriakoak bizikleta jorratzen dute, ezgaitasunen bat duten haurrentzat euskaraz egokitutako sistema, baita landa-eremuko ikerketa ere. Azkenik, "kirol eta gizarteratzearen" arloko proiektua errugbiaren praktikarekin lotuta dago.

[\(informazio +\)](#)

> **PLEk eta Interregok Kohesio Politika gazteriari hurbildu diote Hondarribiko topaketaren aurreko ekitaldi batean**

Uztailan mendi eremuei buruzko topaketa birtuala antolatu zuten Pirinioekin muga egiten duten lurralde guztietako gazteentzat. Pirinioetako Lan Elkarteak Interreg POCTEFaren esparruan bultzatzen du, hau da, eskualdeetako gobernuen eta EBren Pirinioez gaindiko lankidetzaprogramaren esparruan.

Ekitaldi honetan, urrian Hondarribian 70 gazte bilduko dituen Gazteriaren Bigarren Pirinioz Gaindiko Foroaren aurretik, EBren Kohesio Politikak eskualdeko jasangarritasunerako trantsizioan egindako ekarpenaren berri eman da.

[\(informazio +\)](#)



> **NAEN Euroeskualdeak mugaz gaindiko ikus-entzunezko koprodukzioko bigarren Series Saria eman du**

Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako gobernuek eta kultura-agentziek 2021ean sortu zuten sari hori, eta 6.000 euro eman dizkiote honelako ikus-entzunezkoen onenari Gasteizko FESTIVAL telebista jaialdiaren baitan, irailean.

3 eta 6 proiektu finalista bitartean, hiru lurraldeetako eragile sortzaileen lankidetzarekin, FESTVALen ikusi ahal izango dira, eta jardunaldi berean mugaz gaindiko koprodukzio mota horiei buruzko mahai-inguru bat egongo da, Euroeskualdeak Gida bat ere egin duelarik hori sustatzeko. Proiektuak serieak, animazioa edo dokumentalak izan daitezke, eta banaketa digitalera bideratuta egon daitezke, hau da, Internet bidezkoa edo online telebista-plataformetara.

(informazio+)

> **Ibarmiak (Azkoitia) 7 I+G+b projektutan parte hartu du, Hazitek programaren baitan eta Euskadiko EGEF 2014-2020 Programa Eragileak lagunduta**

Enpresa mekanizazio-zentroetan espezializatu da, eta zentro teknologikoekin eta unibertsitateekin lankidetzan aritu da, Eusko Jaurlaritzaren Hazitek programak sustatzen duen moduan. Programa hori, aldi berean, Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren eskualde-laguntzen hartzaille nagusietako bat da Euskadin.

Ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektu hauetarako sortutako 7 partzuergoetako erakunde kide asko Gipuzkoakoak izan dira, hala nola Egile, Fagor, Korta, Ulma, Ibermatica edo Mondragon Goi Eskola Politeknikoa.

(informazio +)



EB 2024: ESTRATEGIA

> Donostiak Next Generation EU-ren finantzazioa lortu du Illunbe eta zentroa autobus elektriko berri batekin lotzeko

Eusko Jaurlaritzak eta Udalak finantzaketa hori txertatzen duen plana azaldu dute, Donostian garatuko diren eta turismoari lotuta dauden eraginkortasun energetikoko beste jarduera batzuekin batera.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburu Javier Hurtadok eta Donostiako Turismo Iraunkorreko zinegotzi Cristina Lagék Donostiako ekimenetan egindako aurrerapenak aurkeztu dituzte. Ekimen horiek Euskadiko Iraunkortasun Turistikoko lehen Lurralde Plana osatzen dute, eta Espainiako Gobernuaren Berreskuratze Planari esker garatzen da, Next Generation EU funtsekin finantzatuta.

Donostia Planaren lehen deialdiko Euskadiko hamaika helmugetako bat da. Hiriak 4,4 milioi euro ditu bere ekimenterako.

[\(informazio+\)](#)

> 2022-27 Euskadiko plan hidrologikoak, eta lehorte eta uholdetazkoak, EBren zuzentarauen arabera eguneratu dira eta Gipuzkoarako ekintzak zehaztu dituzte

Eusko Jaurlaritzak plan berriak berritu eta aurkeztu ditu abuztuan, araudi berrien arabera eguneratuta eta aldundien planak txertatuta.

Plan Hidrologikoa EBren 2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentaraua du bere irizpideen artean eta Uholdeen Planak 2007/60/EE Zuzentaraua; Lehortearen Plan Berezia, bestalde, helburu horretarako garatutako lehena da.

Honako jarduera hauek sartzen dira plan horietan: araztegi berri bat Donostian; beste bat egokitzea Bidasoaldean; 3 kolektore Deba ibarrean, beste bat Urola ibarrean eta beste bat Pasaian; kanal osagarri bat Añarben, Donostialdean; eta uholdeen aurkako prebentzio-jarduerak Oria ibaiaren arroko 3 puntutan, Azpeitian eta Astigarragan.

[\(informazio+\)](#)



> Irurenak (Azpeitia) zurezko eraikuntza berritzaileetarako Basajaun proiektu europarrean parte hartu du

Euskadiko eta Europako beste 28 erakunderekin eta Tecnalía buru dela, Frantziako eta Finlandiako bi eraikuntza esperimentaletan lan egingo du, ingurumenaren eta energiaren iraunkortasunean oso aurreratuak izango direnak.

(informazio+)

> Europan nazioarteko lehiaketan sortutako Beizamako etxebizitza publikoaren ekimen berezia aurkeztu da

Eusko Jaurlaritzak lursail baten lagapena onartu du uztailan, non arkitekto gazte talde batek alokairurako 12 etxebizitza eraikiko dituen, despopulazioari aurre egiten dion ikuspegi berritzaile batekin, lantoki gisa egokiak direlako.

Etxebizitza Sailak Europan izeneko hirigintza lehiaketaren barruan aurkeztu zuen erronka hori, eta nazioarteko proposamen gehien jaso zituen izan zen, Europako beste 39 kokapenen gaineratik. Nazioarteko epaimahai batek Beizamako nukleo txikia nabarmen eraldatuko duten 7 arkitektoak aukeratu zituen, eta 12.000 euro jasoko dituzte sari gisa.

Jaurlaritza duela hamarkada batzuetatik hona inplikatu da bi urtez behingo lehiaketa honetan, eta horrek Lasarte-Oriakoa bezalako proiektuak ekarri ditu, hori ere etxebizitza produktibokoa.

(informazio+)



> Eusko Jaurlaritzak eta Elikak Europako metodologia berria aplikatzen duen elikagaien xahutzeari buruzko lehen azterlana aurkeztu dute Donostian

Europako Batzordeak proposatutako neurketa-jarraibideak aplikatu dira. Estatu kideek 2022rako zifrak eman beharko dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Ingurumen eta Jasangarritasun Sailak, Elika Fundazioaren bitartez, azterlan bat egin du Euskadiko nekazal-elikadura sistema osoan, Europako Batzordeak emandako jarraibideak aplikatuz, metodologia homogeneizatzeko maiatzaren 3ko 2019/1597 Erabaki Delekatuaren bidez.

Ekintza hori elikagaien despilfarroaren aurkako Euskal Estrategiaren parte da. Estrategia hori Basque Green Deal- Euskadiko Itun Berdea ekimenaren barruan dago, eta ekimen hori Europako Itun Berdean oinarritzen da.

(informazio+)



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Euskal udalak dira Europan emakume hautetsien ehuneko handiena dutenak, EUEKaren txosten baten arabera

Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluak ordezkaritza politikoari buruz egindako azken txostenaren arabera, Euskadik du ratio handiena, emakume hautetsien % 46rekin, Europako % 29aren eta Espainiako % 36aren oso gaitetik. Emakumezko alkateen ehunekoari dagokionez, buruko 5en multzoan sartu da, % 30,7rekin.

Eudelek eta Eusko Jaurlaritzak (Emakundek) bultzatuta, Virginia Woolf BASQUESKOLA sarea EAEko alkateen eta zinegotzien berezko gunea da, eta Europa mailan praktika on gisa aitortua izan da CMRE bezalako foroetan.

(informazio+)

> Batasuneko Zuzenbidearen aplikazioaren kontrolari buruzko urteko txostena

(informazio+ - txostena)

(informazio+ - gomendioak)

> Europako gizarte-bilakaerari eta enpleguari buruzko azterlana. Pandemiak gazteen langabezia okertu du

(informazio+)



- > **3 mehatxu handienetazko txostena, EBko Osasun Larrialdietako Agintaritzak egindakoa**

(informazio+)

- > **Ingurumen- eta klima-helburuetarantz egindako aurrerapenari buruzko txostena**

(informazio+)

- > **Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizea 2022: gabeziak gaitasun digitaletan, ETEetan eta 5G sareetan**

(informazio+)

- > **Munduko elikagaien krisiari buruzko txostena, EBren aurreko euskal ordezkariak egindakoa**

(informazio+)

- > **EBren aurreko euskal ordezkariaren txostena, EBk Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa berrikusteari buruzkoa**

(informazio+)



EUROPAKO DEIALDIAK

- > **BEM-Next. Next Generation EU Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa. Kit Digitala programaren laguntzen bigarren deialdia**

(informazio+)

- > **BEM -Next. Euskadiko toki-erakundeentzako diru-laguntzak, 2030 Agenda bultzatzeko**

(informazio+)

- > **BEM -Next. Euskadiko toki-erakundeentzako diru-laguntzak, 2030 Agenda bultzatzeko-itzulpena ez dator bat gaztelaniazkoarekin**

(informazio+)

- > **BEM -Next. Udalerrientzako laguntzak, isuri gutxiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioaren eraldaketa digital eta jasangarria egiteko**

(informazio+)

"EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN" webgunea